

# xapopo

2005eko maiatza - 4. zenbakia




Goizuetako  
aldizkaria

## Azalean ez gelditu Xaporen barruaz gozatu





# zenbaki honetan



- **Argitaratzailea:** Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren euskara zerbitzua
- **Diseinua:** Allende Arnaiz
- **Maketazioa:** eragin.com
- **Laguntzaileak:** Goizueta, Arano, Leitza eta Aresoko Euskara Zerbitzua

- Nafarroako Gobernua:
- Hezkuntza eta Kultura Departamentua
  - Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia



# aurkibidea

- **3**.....Aurkezpena
- **4-6**.....Elkarrizketa: Jesus Mari Apezetxea joaregilea
- **8-11**.....Euskalkiak eta euskara batua Goizuetan
- **12-15**.....IRAN 1998ko uztaila-abuztua
- **16**.....Ezetz asmatu eta pertsonai ezkutua
- **17**.....Txoko-sex
- **18-21**.....Goxali hizpide
- **12-23**.....Elkarrizketa: Aimar Olaizola
- **24-25**.....Hizkuntza minorizatueng inguruko iritziak
- **26**.....Bai Euskarari Akordioa
- **27**.....Txistreak
- **28**.....Zure txanda



# Xaporen laugarrena

**X**APO urtean behin iristen zaigu eskuetara. Asko edo gutxi, baina halaxe da, eta dagoeneko laugarrena. Egonen da, agian, bere adinaren berri XAPOren bitartez emanen duena, etorkizunean: “XAPO jaio zen urtekoa naiz ni” esanen duena. Goizegi da horretarako, baina aldizkaria argitaratzen jarraitzen badugu behintzat, agian etorkizunean horrelakoak entzunen ditugu.

Eta oraingo zenbaki honetan zer? Bada, denetik, ohi bezala. Egin dezagun erreparatxo bat.

Lehenago ere esan izan dugu euskara dela Goizueta berezia egiten duten gauzetako bat. Ez dago zalantzarik. Zergatik? Goizueta oso herri euskalduna delako, eta bertako hizkera eta bere doinua aski biziak direlako. Eta gai hori, euskararena alegia, behin baino gehiagotan landu dugu aldizkari honetan. Ezin izan zitekeen bestela. Baita oraingoan ere: alde batetik, aurreko zenbakian hasitako lanari jarraipena eman diogu, eta euskara batuaren nahiz euskalkiaren inguruan goizuetarrok ditugun zenbait uste eta iritzi bildu ditugu.

Bestalde, azken urteotan euskararen inguruan eskualdean egin den ekimenik garrantzitsuenetako bat ere aipatuko dugu. Bai Euskarari Ziurtagiriaz ari gara. Goizuetako zenbait eragilek (elkarte, talde, denda, enpresa...) Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu zuten, euskararen aldeko konpromisoak hartu zituztelako. Garrantzitsua da gogoratzea, eta horregatik ekarri dugu gaia hona.

Eta hizkuntzaren inguruko kontu gehiago ere badituzu barruan, baina ez dezagun dena aurreratu.

Elkarrizketa, zenbaki honetan, Jesus Mari Apezetxea joaregileari egin diogu. Bere lanbidearen berri eman digu; zertsu den denok jakin badakigu, baina lanbidea hobeki ezagutzeko aukera eman digu harekin egindako solasaldiak.

Gehiago? Bai, noski, eta oso gauza interesgarriak. Herritarrak munduan barna, adibidez. Iran herrialde zoragarrian Susana eta Anttonek izandako esperientzia ezagutuko duzu XAPO irakurrita. Ea zu ere hara joateko aitzakia edo akuilu bihurtzen den.

Herriko pilotari sonatua den Aimar ere orrialdeotara itzuli da. Oraingoan, ordea, duela 14 urteko elkarrizketa baten bitartez. Orduko esanak eta argazkiak ekarri ditugu hona, Aimarren ibilbidea urteen joan-etorrian kokatzeko.

Eta baita Goxaliren berri ere. Herriko haurrentzat gauza ederra dela iruditzen zaigu, eta denok pixka bat gehixeago ezagutu beharrekoa gainera. Horretarako egin dugu aurkezpen txiki bat, eta horretarako sartu ditugu zenbait elkarrizketa.


Eta, noski, sexuaren txokoa ere badugu. Oraingoan, gainera, berezitasun batekin. Orain arte ez bezala, pertsona heldu baten lekukotasuna ekarri dugu, garai batean bizitutakoaren testigantza interesgarria. Hori ere Goizuetako historia da, ezagutu beharrekoa.

Horietaz guztietaz gainera, ohiko atalak: ezetz asmatu, pertsonaia ezkutua, azken orrialdeko elkarrizketa laburrak. Bada gaia, beraz, eta zure gustukoa izan dadila, irakurle. Besterik gabe, goza ezazu, eta hurrengo zenbakia arte.





e karrizketa



# Jesus Mari Apezetxea Joaregilea



**J**exux Mari Apezetxea 40 urteko goizuetarra dugu. Arrate Etxeberria oiartzuarrarekin ezkondua eta 5 urteko Mikel eta 2 urteko Ane-ren aita. Goizuetan jaio eta bizi da eta bertan egiten du lan. Jexux Mari, denak dakigun bezala, joaregilea da; datozen orrialde hauetan pixka bat gehixeago ezagutuko dugu haren bizi-eta eta gehienbat haren lanbidea.

## • Noiztik ari zara joaregile lanetan?

Hamazazpi urtetan hasi nintzen, fijo, lanea. Baina lehendik ere eskolan ari nintzela attak beti honera bidaltzen ninduen. Bera zentralera jotzen eta ni launtzera tortzen nitzan.

## • Nola bururatu zitzaizun honetan hastea?

Nere aurretik atta eta osaba aritzen zian eta haun aurretik attona aritzen izan behar zun, kanpoko beste norbattekin. Hasieran ez zian hemen aritzen, attona-ta "itxe berriko" hortan, eta atta-ta Porttolo-ta bizi dian hortan aurrena ta azkenik hemen. Belakon ere aritu omen zian. Hasiera Danbolin-bordan izan omen zen eta lehenbiziko joarea "txapazko barreñori" ipurdia kenduta in omen zuten.

## • Noiz pentsatzen hasi zinen joaregile izan nahi zenuela?

Pentsatu egia esateko inoiz ez, horrela tokatu da eta orain gustora nago.

17 urte arte Korroxxkakin igeltsero lanetan aritzen nitzan eta nik hura nun gustoko, baino gero itxeko obra bukatu zenen hark martxa in zun ta orduan hemen lan asko zen, eta osabakin hasi nitzan. Harekin segittu ta nere kontura orain dela 10-11 urte hasi nitzan.

## • Noizbait pentsatu al duzu utzi eta beste zerbaitetan hastea?

Ikasi nuna hau zen eta gainera lehen esan duan bezala gustora aritzen naiz.

## • Esprikatuko ahal dizkiguzu joare

## bat egiteko jarraitu behar diren pausuak?

Lehendabizi txapa moztu behar da, segun eta ze joare in nahi den haren plantilla erabiliz. Hora moztu eta gero txingure baten biltzen da. Belarrik eta atere, bueno montatu joarea eta gero latoia botatzen zio, soldeatzeko eta kolorea emateko. Paperen bildu hora, bokadillua bezala. Buztina lastoarekin eta preparatzen dut, harekin berriz bildu eta sekatzten denean labera.

Gu hasi ginan joareak likidon sartu eta "elektrolisi" bidez erretzen. Baina atta beti aritzen zen "eunan baten in behar du proba denbo baten bezala". Beti gauza bera entzuten nazkatu eta esan nion "bueno, edo erakutsi nola itten zen, edo ixildu", eta parrila txar bat preparatu zun eta han bi joare edo erretzen zittun. Orduan ikatza ibiltzen zen eta momentu guztitan buelta ematen ibili behar zen. Gero gainera azpitik haizea hartu ezker joarea ondatu itten zen. Hori bai, saltsa hora gustatu in zizian eta ordun labea montatu nun. Oso politta iruditu zizian, baino ez zen lanen jarraitzeko martxa. Harekin lau bat ordu sutan eta nahikoa zen, gorputzak ez zuen gehiago aguantatzen, gero ikatzen hautsa...

Labetik atera eta kolpe batekin buztina puskatzen zaio. Hora ia pulitu, soinua patu, mingaina iratsi eta aire.

## • Mingaina nolako da?

Mingain batzuk PVCKin iñak dia



eta besteak poliesterrakin. Errioxa alde hortan aldiz egurrakin itten ttuzte.

## • Joareak soinu ezberdina izateko zer egiten da?

Hori plantillakin lortzen da eta txapan lodierarekin.

## • Zenbat joare mota egiten dituzu?

Ehun bat klase edo, pasatuak ez badia.

## • Zein animalientzat?

Inguru hortan ardia, bihorra, behia eta ahuntzarentzat, baino ezin da esan ze joare ze animalintzat den. Leku batzutan batzuk animalia batzuntzat ibiltzen ttuzte eta besteak, beste animalia ezberdin batentzat. Adibidez hemen ardintzat ibiltzen dena Bizkai aldean bihorrantzat ibiltzen dute. Ta Hueska aldean berriz hemen behia edo betizuri patzen zaiona ardiari patzen diote. Leku guztian diferente.

## • Noizbait errukitu al zara lan honetan hasi izanaz?

Lehenago ez hasikan errukittu naiz. Nere kabuz alegia. Attari ama-gin batetan esaten nin eta hark beti

«Nere aurretik atta eta osaba aritzen zian eta haun aurretik attona aritzen izan behar zun, kanpoko beste norbattekin»





“nola hasiko za ba, etzo gauz onik iñen ta”. Orduan parranda besteik ez giñun burun ta.

Gero berriz Lekunberrin hasi nitzanen goizen 6tako hara jon eta 2:30tan atere ta hemen berriz ilunabarreko 8k arte. Ta egunero hortan... Azkeneko biden in nittun eskapada bat edo beste eta orduan ia esan nun “fuera, gehio ez”. Orduan erabaki nun nere kontura hastera.

**• Zein lekutara bidaltzen dituzu hemen egindako joareak? Hemendik kanpora ere bai, ez?**

Bai, Frantzia eta Greziara bialtzen ttut, eta Italira ere biali izan ttut. Hoi-tara gehiena zakurrantzat bialtzen dia. Ardin katalogoak ez ttut biali hemen nahiko lana bai baitut. Handik horiek ere eskaka hasten badia gero, gaizki ibili behar dut. Lana pila-tu itten da, denatan batera hasten baitia eskaka.

Amerikatara ere bialtzen ttut. Txo-ppek eramaten tto. Ta gero Yantzi eta Lesakatik ere eskatu izan ttiazte hara bialtzeko.



**• Goizuetako egin berri den ferian ikusi zintugun postu batean, eta bertan nola egiten ziren erakusten ere bai. Beste ferietan ere ibiltzen al zara? Non?**

Feritan gutxi. Lehen ibili nitzan UEMA bidez eta gero Astigarragako lagun batzuekin ere bai, baino ez du merezi. Ez da batere saltzen, non eta feria ganaduna ez den behintzat, eta han ere...

Lana haundia da, ordu asko egon beharra, eta denbora sobraikan ez dugu.

UEMA-n tokatu zian Zeanurin, ganadun feria eta postua lore tarten. Antolatzaileari esan niten, “nola patuko diazte hemen postua, paziazte niri ganadua don lekun”. Berak ez omen zuten mahairik eta neunek eramantako batekin jarri nitzan ganadua zon lekun. 12k aldera arte inor ez zen ibili. Gero artzaiak ia muturrak berotuta torri zian eta orduan bai, hora bai joare saltzea.

Orduan saldu non, bino bestela ez du merezi.

**• Seguruenik zu bezala dabiltzan hainbat eta hainbat joaregile ezagutuko dituzu, konpetentzia handia al dago?**

Bai, nik uste baino haundioa. Ni hasi nitzanen, uste nun 3 bat laun edo hola ginala, baino harrapatu ttut Santanderren barna, Bartzelonan, Hueskan, Errioxan, Sorian, Salamankan...



**• Eta hemen inguruan? Iturgoienen.**

**• Etorkizun handiko lana al da? Aziendak alditik aldira gutxiago dau dela esaten da.**

Aspaldi soinua badabila, baserri-tar gutxio dela, azinda gutxiokin, baino beti berdintsu saltzen ari naiz ni.

Beldurra “Behi eroak” azaldu zian orduan hartu nun, baino iol-iol saldu nun nik.

**• Urtean gutxi gorabehera zenbat joare saltzen dituzu?**

Ez dut ideiarik e, ez dakit esateko.

**• Mila bat joare?**

Baita gehio ere. Millaka batzuk.

**• Gustatuko al litzaizuke zure seme-alabak honetan jarraitzea? Edo beste zerbait egitea gustokoago zenuke?**

Gustatu ingo liake baino hori beraiek ikusi beharko dute.

Lan honek duna da gorra dela, ordu asko sartu behar diala.

**• Zenbat lagun ari-tzen zarete lanean?**

Anaia ta biek eta atta, besteik ez da kabitzen eta.

**• Gaur egun esaten da teknologia berriekin lana askozaz errezagoa dela eta jende gutxiago behar dela horiekin funtzionatzeko. Zure lan honetan aukerarik izango al litzateke zerbait egiteko, dena eskulana izaki eta, alegia?**

Aukera bada, baino arrunt garestia da. Galdezka ibili nitzan. Lehen esan duan bezala ehun ta gehio joare klase battut eta bakoitzantzat trokel bat mozteko eta bestea forma emateko beharko liake. Joare ttikinantzat bi trokel hoiek 3 bat miloi — lehengo pezetak — kostako liake. Hortik kontuk atere joare haundintzat beharko litzaken trokela eta gastua.

«Inguru hontan ardia, bihorra, behia eta ahuntzarentzat, baino ezin da esan ze joare ze animalintzat den. Leku batzutan batzuk animalibatzuntzat ibiltzen ttuzte eta besteak, beste animalia ezberdin batentzat»



??????????



**Zerk elkartzan gaitu?**





# Euskalkiak eta euskara batua Goizuetan

zenburuan ikusten duzuen bezala, beste artikulu baten segida da hau. Bai, inkesta bat zen, oroitzen? Goizuetako hizkeraz eta Euskara Batuaz zuen iritzia eskatzen genuen eta baita bildu ere, batzuk bederen. Gainera, esan behar dugu jasotako erantzunak arrunt zentzuzkoak iruditu zaizkigula eta guk ere bertatik ikasteko aukera izan dugula. Horregatik, jakinduria hori guretzat bakarra izan ez dadin, zuengana iristarazteko artikulu hauxe egin dugu. Hala ere, ez zarete gure “txapita” horietako batez libratuko! Ez horixe!

Nondik hasiko gara, beraz, zuen erantzun mamitsuetatik edo “txapitikan”? Badakigunez aurrena ona paratuz gero, ondorengo irakurri gabe geldituko dela, zuen nahiaren kontrara, AURRENA TXAPAAA!!

## Historia pixka bat

Historia pixka bat eginez, Euskara Batua 1968. urtean jaio zela esan behar dugu, Euskaltzaindiak Arantzazun egin zuen biltzar batean. Honek ekarritako onurak ezagunak dira. Baina, harrezkero egindako bide motzean, adiera eta bereizgarri batzuk hartu ditu: Euskara Batua aurrerakoi, moderno eta hiritarra izatearekin lotu izan da. Euskalkia berriz, atzerakoa, iraganarekin lotua eta herrixka edo baserri girokoa dela

pentsatu izan du askok eta askok.

Honek guztiak, Koldo Zuazoren hitzetan, Euskara Batua modu itxian ulertzea ekarri du, betiko euskara baztertu eta euskara arrotz eta exotikoa zabalduz, “Marteko euskara” izendatutakoa sortuz (*pairatu, ekidin, deia luzatu, jangarri...*). Baita “Orotariko euskara” ere, euskalkiak nahasita sortua: *Jin zaitezen gura dut*. Eta gainera, Euskara Batuaren aldeko ekimen honek hizkuntza batek osasuntsu aurrera segitzeko beharrezko dituen gainerako hizkerak ahuldu ditu. Gainbehera datoz haur hizkera, gazte hizkera, lagunarteko hizkera, lanbideetako hizkerak edo argotak eta gainbehera euskalkiak ere.

Honek eta Euskara Batua lehenbailehen zabaldu nahi izanak euskara soildu eta murriztu egin du. Euskara ikasi nahi duenarentzat lana erraztu da, baina erabili behar duenarentzat erakargarritasuna galdu du. Hori iruditzen zaie, bederen, hiztun askori. Euskaratik erdarara pasatzeko arrazoia galdetuz gero, euskarak ez duela indarririk, jolasteko eta gozatzeko aukerarik ez duela ematen erantzuten dute askok.

## Eta Goizuetan, zer?

Zer gertatu da, ordea, Goizuetako



hiztunengan? Aurreko urteko inkestak erakutsi digunez, hemen ez da euskalkiarenganako halako mespretxu eta ideia baztertzailerik ageri. Bertako hizketa gurasoengandik gabe pasatu izanak ere hori adierazten du eta baita bertako euskararen erabilera tasa handiak ere.

Honekin lotua, inkestaren erantzun-





le batzuk Goizuetako hizkeran aldaketa batzuk nabaritu dituztela esan digute. Gehienbat, hitz batzuk galduz eta aldatuz doazela, zenbait egiturekin batera. Dena dela, honekin gehiegi ez kezkatzeko esanen nizueke, Euskal Herriko beste lekuekin konparatuz, Goizuetan oso ongi mantendu delako bertako hizketa eta hizkuntzak berezkoa duelako aldatzeko joera hori.

Euskal Herriko leku askotan, gauzak beste era batera gertatu dira. Euskara Batua euskara ona eta jasoa dela pentsatuta, erabilera guztietara zabaldu da eta noski, honek eragina izan du. Herri euskaldunetako jende askok, bere euskara txarra zelakoan, ez die seme-alabei erakutsi, ez du transmititu. Goizuetan, ordea, ez dirudi halako kalterik gertatu denik. Eta, gainera, beste leku askotan bai-

no hobe ulertu da Euskara Batuak eta euskalkiak bere lekua badutela eta batak besteari kalterik egin gabe, elkarren lagungarri eta osagarri direla.

Baina, hau guztia esanda, ez pentsa dena ongi egiten dugunik eta erabat lasaitu!! Bide onetik goaz baina, beti daude hobetzeko gauzak eta aurrera segitu behar da!





Eta kitto! Hauxe zen ba gure puxka pisua! Ez da hainbestekoa ere izan, ez? Eta orain bai, zuen erantzunen berri emanen dugu, denentzako baliagarri izan daitezen. Zuek emandako erantzunen artean aukeraketa bat egin eta honako iritzi hauek bildu ditugu.

## Inkestaren emaitza

• **Euskara Batua beharrezkoa al da?**

### Bai. Zergatik?

1. Euskalki ezberdinetako euskaldunek elkar ulertzeko.
2. Erdaldunek euskaraz ikasteko eredu bat edukitzeko.
3. Euskararen etorkizuna bermatzeko.

4. Esparru teknikoetan euskara erabili ahal izateko.

5. Norberaren herritik goiti Euskal Herri bat badagoela ikusteko.

6. Euskararen normalizazioa lortzeko.

(Ezezkua ematen zuen erantzunik ez dugu jaso).

• **Euskara Batua kaltegarria al da? Ez. Zergatik?**

1. Euskalkia eta Euskara Batua elkarren osagarri edo komplementario bezala erabiliz gero.

2. Hizkuntza idatziari ez dio kalterik egin beharrik. Alderantziz, hizkuntza batek gehiago iraungo du araututa egonez gero (aurretik ikusitako arrazoiengatik).

3. Baina, betiere, beharrezko denean bakarria erabiliz gero.

### Bai. Zergatik?

1. Norberarena baztertzen badugu.
2. Ahozko hizketari freskura kentzen badio.

Gehiengoak ez du pentsatzen Euskara Batua kaltegarria denik, berez. Gauza da, beharrezkoa denean erabiltzea. Baina, argi al dugu noiz den beharrezkoa? Zuen erantzunen artean jasotako ohar eta gomendioak ere baditugu.

• **Noiz erabili behar da Euskara Batua?**

### Ahozko hizketari dagokionez:

1. Norberaren euskalkia erabiliz gero, batak bestea ulertzen ez dugunean (tartean sartzen dira euskara ikasten ari direnak).
2. Euskal Herri guztiari zuzendutako



ONGI ETORRI  
GOIZUETAN ERE  
EUSKARAZ

komunikabideetan (Euskal Herri osoan entzun eta ikusten ditugun irratitelerak, adibidez).

#### **Idatzizkoari dagokionez:**

1. Norberaren euskalkitik kanpoko eremuan.
2. Euskal Herri guztiari zuzendutako idazki eta komunikabideetan (liburuak, aldizkariak, iragarkiak...).

#### • **Noiz euskalkia?**

##### **Ahozkoan:**

1. Elkar ulertzeari traba egiten ez zaionean, askotan beraz. Tartean, eskualde edo inguru jakin bateko irratitelerak, adibidez.

##### **Idatzian:**

1. Euskalkiaren eremuko idazkietan.

Partehartzaile batzuk esan diguten bezala, ahal den gehiena erabili behar

da norberaren hizkera, askori gustatu egiten baitzaie besteena entzun eta ezagutzeko. Bestalde, euskararentzat aberastasuna da gauza bera esateko modu asko edukitzea eta pena litzateke altxor hori galtzea.

### **Proposamenak eta galderak**

Azkenik, inkestaren bukaeran zuen proposamenak eta galderak egiteko atal bat utzi genizuen. Hauxe da iritsi zaiguna:

- Goizuetako hitzen hiztegi bat sortu eta zabaltzea, euskalkia indartzeko.
- Herritik kanpora gaudenean ere, euskalkia erabiltzeko.
- Emakumeen artean "hika" forma

ia galdu delako kezka.

- Herriko zenbait jendek, euskara jakinik ere, gaztelera erabiltzen dutelako kezka.

- Herriko hainbat sektoretan (idatzian, batez ere) euskaraz ez delako idazten kezka: komertzioetan, kutxan...

- Euskal Herriko beste euskalkiak ezagutzen ez ditugulako kezka (Bizkaia, Zuberoa, Lapurdikoak...), ikasketxeetan zerbait erakusteko proposamenarekin batera.

Hauxe izan da gure gogoeta. Argi dago zuen partehartzerik gabe ezin izanen gurea artikulu hau idatzi. Beraz, mila esker!! Norbeteke zerbait eskas dela uste badu, berriz, hurrengo Xaporako bere iritzia zain gelditzen gara.

# IRAN

## 1998ko uztaila-abuztua

Iran buruz hitz egiteko mendi bat paper beharko genuke; izan ere, gure herrialde maitena dugu.

Iran oso herrialde gaztea da. Populazioaren % 75a 30 urtetik beherakoa da. Gazte bizia, langilea, ikasketetan oso ongi prestatua, eta mundua jateko gogo handiarekin.

Persiako "Sha"ren garaian herria zeharo bestelakoa zen. Oso herrialde modernoa zen, eta petroleoa zela-eta munduko herrialde garrantzitsuenen artean zegoen. Jende asko aberastu zen — batez ere "Sha"ren inguruko jendea —, baina beste asko (gehiengo handi bat) orduko bizimoldearekin konforme ez zegoenez, Iraultza Islamikoa egin zuten.

Iranen buru "mulah" delakoak egin ziren, eta oraindik haien boterearen menpean daude. Iraultza Islamikoarekin batera jaiotze tasa ikaragarri igo zen, oraingo datuetara iritsi arte. Orain gertatzen dena alderantzizkoa da: jende gazteak bere mugak ireki nahi ditu eta garai haietan ezarritako sistemari loturik ikusten dute beren burua.

Iranen botere bat bitan desberdintzen da, hau da, bat erlijioarena eta beste bat soziala dei dezakeguna. Biak erlijioarekin kontrolatzen dituzte, baina haien artean batek erlijioaren itxitasuna dauka eta besteak, aldiz, arlo soziala kontrolatzen du. Alde erlijiosoak militarrek eta epaitegiak menperatzen ditu (garrantzi handiena duena, hain zuzen) eta besteak gainerako guztiak. Gauza da botere erradikala ezin dutela inolaz ere kendu; beste arloetako lehendakaria hauteskunde bidez aukeratzeko dute, hemen bezala. Jakingo duzuen bezala, alde liberalak (Hatami) populazioaren % 90aren botoekin irabaz-



Zein dira hauek? Isfahan



Te bat hartzeko leku ederra. Kerman



Gazte bat manifa batean. Sirhaz



Arkitekturako ikasle bat lanean. Isfahan



"Iman Jomeini" plaza ederra. Munduko hirugarrena, Pekineko "Tianamen" eta Moskuko "Gorria"ren atzetik. Isfahan



Gure sandaliak garbitu nahian ibili ziren arratsalde osoan bi mutiko hauek, eta azkenean lortu ondoren, ez ziguten kobratu. Isfahan

ten du, inongo beste herrialdetan ikusten ez den bezala. Gazteek aldaketak nahi dituzte, baina beste boterearekin ezin dute. Nahiko konplikatu da alde horretatik ikusita.

Iranen etxean bezala sentiarazten zaitu bertako jendeak. Horrek zerikusi handia dauka haien erlijioarekin. Hau da, islamaren barruan, iraniarrak-persiarrak "txii"ak dira, oso desberdinak beste herri musulmanen aldean (suniak gehienbat). Abegi eta harrera ona egitea dute helburu, eta nabari da. Ez zaie batere gustatzen "arabiar" deitzea, ez baitira hala! Gu behintzat etxekotzat hartu gintuzten joan ginen herri, hiri, etxe, baserri... guztietan. Oso jende maitekorra da persiar jendea.

Batzuetan gehiegixko ere. Goizean, jaikitzerakoan, pentsamendu bakarrarekin ateratzen ginen kalera: gaur ez gara inoren etxera joango, ez dugu utziko inork gonbidatzerik, ahal dugun guztia egingo dugu ahoa ez irekitzeko atzerritarrak garelako ez daitezten, baina ezinezkoa!!!!

Konturatzen direnean atzerritarra zarela, bukatu dira egun horretarako zenituen planak. Esponjak bezalakoak dira: zure bizia-ri, zure herriari buruz dena jakin nahi dute. Bertako komunikabideen informazio eskasia zurekin ase nahi dute. Oso herri jakituna eta bizia denez, informazioa ahal duten leku guztietatik bilatzen saiatzen dira. Antena parabolikoak dituztenen etxeetan berriak



Zu haiei argazkia ateratzera joaten zara, baina haiek ere gureak nahi dituzte. Sirhaz



Sha' ren jauregian elkarri begira. Teheran

ikusten dituzte, interneten... baina, hala ere, zu haientzat informazio iturri handi bat zara. Inguruko beste herri musulmanekin konparatuta alde handi bat dago: emakumeek hemen bezalaxe ikasi eta lan egiten dute. Hori ez da askotan ikusten beste inguruko herrialdeetan! Bere alde txarra ere badu: "Legez", kalean, bai emakumezkoek eta bai gizonezkoek janzkera ongi mantendu beharra dute; alegia, emakumezkoek kalean gureak bezalako arropak eramaten dituzte, baina gainera "txador" bat (burutik oinetara doan oihala, normalean beltza) edo beroki fin eta arin bat eramaten dute gorputzera; buruan zapi bat. Gizonezkoak ezin dira galtza luzearekin eta mauka luzeko alkandorarekin baizik ibili. Etxera iritsi bezain laster sarreran zintzilikatzen dituzte arropa horiek eta etxean gu bezalaxe egoten dira. Bakeroak, kamiseta estuak, galtza edo gona motzak... Horrela erosoago sentitzen direnez gehienetan etxetan egoten dira. Festak etxetan egiten dituzte, bai gazteek eta bai zaharrek. Guretzat ere oso eroso zen haiek bezala jaztea, horrela ez genuen pentsatu beharrik zer jantzi kalera ateratzeko. Sotana eta zapi beltza jantzi eta kalera.



Adobezko gaztelu zoragarri hau 2003ko lurrikara izugarri hartan desagertu zen, inguruko 100.000 biztanle bezala. Bam



Beste mezkita eder bat. Oso politak dira mezkita persiar guztiak. Yazd

Esan beharra dago, bestalde, munduko beste herrialdeen aldean, populazio ia osoa alfabetatuta dagoela. Bai zaharrak eta bai gazteak ere. Izugarri gustatzen zaie irakurtzea, eta Irango pertsonai garrantzitsuenetako bat Hafez poeta da. Haren olerkiak ia iraniar guztiek ezagutzen dituzte. Hafezen hilobia da Iranen gehien bisitatzeko den monumentua. Irratietan noiznahi entzun daitezke haren



Atera, atera argazkia lagun !!! Isfahan



Gustora hizketan; alaitasunean. Isfahan



Erosketak egiten turkmenistandarren artean. Gorgham



Iran herrialde menditsua da. Damavand (5.705 metro) mendi inguruan. Elbuz mendatea



Zenbait espezia merkatuan. Tabriz

olerkiak. Oso polita da ohitura horiek mantentzea, izan ere, gure Euskal Herri honetan horrelako ohitura onak galdu ditugu. Badirudi kultura den guztiak alergia antzeko bat sortzen/ematen digula.

Askotan gertatu zitzaigun, denda batzuetara eroatera sartu nahi izan eta ezer erosi gabe eta bazkalduta ateratzea, bertako saltzaileek ez zutelako nahi guk ezer erostea, bai-zik eta gure hemengo bizitzaz hitz egitea. Haiek berena guri kontatu eta guk gurea haiei trukean. Seguru-erik ere, erosi behar zenuen hura oparizat emanen dizute.

Hemengo ohituretan hazita gaudenok askotan gaizki sentiarazten gaitu horrelako jokaerak, askotan lotsaturik egoten ginen. Haiek beren etxea, beren familia, beren janaria gurekin konpartitzen zuten, eta guk ezer ezin genien eman trukean. Oso zaila da hori ulertzea. Bueltak etortzen dira haiek hona etortzen direnean. Bertako bi lagun etorri ziren gurera bisitan eta beren mailara iristea oso zaila da. Zuri egokitzen zaizunean konturatzen zara. Zuk eman ahal duzuna haiek ematen dizutena-ren aldean ez da ezer.

Ikaragarria da egun batean etxeko buzoia ireki eta haien eskutitz zoragarriak jasotzea. Zutaz ahazten ez direla konturatzea. Edo posta-zerbitzuko ziurtagiri bat hartzea Irlandik iritsi zaizun paketea jasotzeko, haiek eginiko pastelaz beterikoa.

Benetan, aukera baduzue behintzat, ez inoiz ezezkorik esan Iranera suertatuko bidaia bati. Beti aukera ona da Iran, bai paraje zoragarriak dituelako, bai monumentu ederrak dituelako ere. Baina Iranen dagoen zoragarriena eta hemen topa ezin dezakeguna, bertako jendea da.

*Susana eta Antton*

# ezetz asmatu



## EZETZ ASMATU

Ez dezala inork esan ariketa zaila jarri dugunik. Herrian denok elkar ezagutzen dugu, eta urte gutxi batzuk joan izana ez da aitzakia ez asmatzeko. Eta batzuk bakarrik ezagutzeak ere ez du balio. Denak asmatu behar dituzue!

## PERTSONAIA EZKUTUA

Aurrekoetan asmatu zenuen? Bada, ea oraingoan ez zaizun zailago gertatzen. Eta lasai egon zaitez, pertsonaia ezkutu ez zara zu. Gainerako goizuetarren artean bilatu eta asmatu beharko duzu.





# Haiek bai garaiak!!!



**X**apo urtekariko aurreko aleetan gazteak izan dira txoko hau bete dutenak. Nabari zuen, idazkeran eta erabilitako gaietan batez ere. Ale honetan helduxeagoek hartu dute orria betetzearen ardura. Baina ez helduok sexua nola bizi dugun esateko, (beste Xapo baterako gaia izan liteke hau) gaztetxoak ginenean sexua nola bizitzen genuen esateko baizik.

Emakumeen egoeraz ezin dut idatzi, horren berri gutxi dakidalako. Mutilak 12-13 urte beteak izaten genituen idiarena nola jotzen zen ikasi orduko. Normalean gu baino "azkarragoa" zen batek ematen zigun horren berri. Hori bai, behin ikasi ezker ez zitzaigun berehala ahaztuko, potrozakua erabat lehortu arte horretan aritzen baikinena gau eta egun. Txapelketak ere antola-

tzen genituen. Ilundutakoan Lubineko frontoira joan eta zigarro bana erre ondoren, koska gainean jartzen ginenez zutik koadrila osoa. Berehala "irteera" ematen zen, idiarena jotzen hasteko ordena alegia. Txorroa urrutiena botatzen zuenak irabazten zuen, baina azkartasuna ere kontutan hartzen zen. Abudoena korritzen zenak ere puntuak jasotzen baitzituen.

Hilere-hilero Don Saturnino edo Don Eugeniorengana joan behar izaten genuen konfesatzera, eta orduan izaten ziren istiluak. Nere sudurretik ez du alde egingo konfesionarioaren barreneko usaiak, baina ez zen hori txarrena. Mandamentuz-mandamentu interrogatzen gintuen Don Eugeniok eskuak palakatzen zizkigun bitartean. 6.ean etortzen zen galdeketarik zorrotzena: haragizko pekatuak?

Bai, Jauna. Pentsamentuz edo obraz? Bietara. Zenbat aldiz? Egunero... Eta horrela nik ez dakit zenbat galdera. 6. mandamentuaz ari ginenean eskua askoz indartsuago palakatzen zigun Don Eugeniok. Hain larriak izanik mandamentu honetako pekatuak, gu kontsolatzeagatik egiten zuela uste izaten nuen nik orduan, baina beste arrazoi intimo eta gogorraren bat "tar-tean" egon zitekeela iruditzen zait gai honi gaurko ikuspegitik begiratzen diodanean.

Don Eugeniorenak entzundakoan idiarena gehiago joko ez nuela pentsatuz ateratzen nintzen Elizatik. Baita etxera joan orduko nere koartoko gurutzaren aurrean belaunikaturik Jesuseri berriz barkamena eskatu ere. Pare bat egun irauten zuten gehienez nere intentzio on horiek.



# Goxali

Erreportaje honetan Goxali duzu hizpide. Irakurle gehienok badakizue, ziur asko, herriko haurrak elkartzeko gune bat sortu dela azken urteotan, eta horixe duzu Goxali. Aurkezpen labur bat eginen dugu horren berri emateko, baina inkestatxo bat ere osatu dugu, esperientzia honen inguruan informatzeko modu zuzena eta argia delakoan.

## Aurkezpen labur bat

“Goxali” haur txokoa 2001-02 ikasturtean abiatu zen, Andres Narbarte “Xalto” ikastetxeko “Gurasoak” gura-

so elkarteko kide batzuen kezkarierantzun nahian. Arrazoia: negu partean ez zegoen haurrak elkartzeko aterpe egokirik. Guraso Elkartek eta eskolak, bestalde, beharrezkotzat jotzen liburutegia antolatzea, herrian ez baitzegoen horrelako baliabiderik. 2002. urteko martxoan martxan jarri zen eskolaz kanpoko ordutegian, eta horretarako eskolako jangela ireki zen; gurasoek eta Irakasle Eskolako praktiketako ikasle batek hartu zuten horren ardura. Materiala eman egin zitzaizen eta Drogamenpekotasunaren Prebentziorako Plan Foralaren dirulaguntzekin abiatu zen.

Hasiera batean irakurketa-leku,

liburu-mailegu eta etxerako lanak egiteko gune gisa funtzionatu zuen. 2002-03 ikasturtean, berriz, gizarte zerbitzuaren eskuhartze handiagoari esker, txokoaren prestazioak zabaldu egin ziren, eta hainbat tailer antolatu ziren.

Goxali hiru urtez egon da martxan, guraso, boluntario eta praktiketako ikasleei esker. Kudeaketaz nagusiki gurasoak arduratu dira, horiek parte hartzen baitzuten txokoaren dinamizazioan, txandakatuz eta hezitzailearekin batera. Eskolaren parte hartzea ere erabakiorra izan da, lekua utzi eta proiektua buztatuz eta animatuz.

## • GURASOAK



**Izen-abizenak:** Rosa Olaizola

**Adina:** 38 urte

**Lanbidea:** Tabernaria

### **1. Noiztik ezagutzen duzu Goxali? Nola izan zenuen Goxaliren berri?**

Guraso Elkartean proposatu zenuetik.

### **2. Zerbait egin al duzu zuk Goxali martxan jartzeko? Zer?**

Ez.

### **3. Herriari zer ekarri dio Goxalik?**

Haurrentzat leku bat jokuak egiteko.

### **4. Zerk erakartzen zaitu gehien Goxalitik?**

Nere alaba pozik joaten dela.

### **5. Goxaliren eginkizunik onena?**

Dena.

### **6. Goxaliren hutsunerik handiena?**

Eskulanak egiteko materiala.

### **7. Zer eskatuko zenioke Udalari Goxalirentzat?**

Liburuak eta jostailuak.



**Izen-abizenak:** Resu Hernandez  
**Adina:** 40 urte  
**Lanbidea:** Etxekoandrea

## **1. Noiztik ezagutzen duzu Goxali? Nola izan zenuen Goxaliren berri?**

Sortu zenetik. Guraso Elkarteke juntakoa nintzen eta baita antolatzaile ere.

## **2. Zerbait egin al duzu zuk Goxali martxan jartzeko? Zer?**

Bileretan parte hartu, deialdiak egin, beste gurasoekin hitz egin, diru-laguntzak eskatu...

## **3. Herriari zer ekarri dio Goxalik?**

Umeei leku bat egoteko, eskolako lanak egiteko, beren arteko harremanak indartzeko. Gurasoak ere elkartu egin gara lokalaren prestaketarako.

## **4. Zerk erakartzen zaitu gehien Goxalitik?**

Leku atsegina bat lortu dugula umentzako.

## **5. Goxaliren eginkizunik onena?**

Irekita egotea.

## **6. Goxaliren hutsunerik handiena?**

Leku gehiago, liburu gehiago, eta asteen behin herritar guztiei zabaltea, gutxienez.

## **7. Zer aldatuko zenuke Goxalin?**

Leihoak, solairua, atea, komonak... Beno, lokalari dagokionez; bestela, aldatu ez, gehitu...

## **8. Zer egin dezakezu zuk Goxali hobetzeko?**

Dakizkidan trebetasunak erakusteko aukera izatea nahiko nuke (gantxilloa, punto cruz...).

## **9. Zer eskatuko zenioke Goxaliren arduradunei?**

Asteazkenetan denentzat irekita egotea, umeek ez baitute eskolarik.

## **10. Zer eskatuko zenioke Udalarik Goxalirentzat?**

Ondoan dagoen lokala (frontoi itxia), lokal guztia egokitzea (leio, ate, zolu...); ordenagailu-ekipamendua jartzea; inplikazio handiagoa izatea.

## • **BEGIRALEAK**

## **1. Noiztik ezagutzen duzu Goxali? Nola izan zenuen Goxaliren berri?**

Guraso batek hitz egin zidan proiektuaz eta gero Arantxarekin jarri nintzen harremanetan.

## **2. Zergatik zaude Goxalin begirale? Zer ematen dizu zuri pertsonalki?**

Oso interesgarria iduritu zitzaidalako proiektua. Herriko haurrekin harremanetan jartzea.

## **3. Zertaz arduratzen zara zu Goxalin?**

Liburutegiaz.

## **4. Gustura ibiltzen al dira umeak? Zein da gehien gustatzen zaien ekintza?**

Taldeko lanak egiten dituzte gehienbat. Gutxi irakurtzen dute.

## **5. Zein da gutxien gustatzen zaien ekintza?**

Irakurtzea.

## **6. Umeek berek beren jokoak antolatzeko zer egiten duzue, eta zer proposatuko zenuke?**



**Izen-abizenak:** Mirari Etxegia  
**Perurena**  
**Adina:** 40 urte  
**Ikasketak edo lanbidea:** Irakaslea (PT) eta ikaslea (Goi zikloko "Integración Social")

## **7. Zer egin dezakezu zuk Goxali hobetzeko?**

Jokoak hasi aurretik haiei galdetu ea zer egin nahi duten. Eta jokoak ikasi eta gero bai eskatzen dutela berriro errepikatzea.

Umeetako bat ardura dadila jokoak ongi ikasi eta "berriei" erakustez.

## **7. Gurasoekin harremanik baduzue? Zertarako da beharrezkoa?**

Bai, Goxalin guraso bat dago eta gero beste gurasoei ere galdetzen zaie ea haien umeak gustura dauden edo ez.

## **8. Eskolarekin harremanik baduzue? Zertarako da beharrezkoa?**

Bai, zuzendariarekin. Beharrezkoa

da, bultzatzaileetako bat izan delako eta material asko bertatik lortzen delako.

## **9. Nondik nora ikusten duzu Goxaliren etorkizuna?**

Era honetan jarraitzen badu, ona. Lan asko eskatzen du, baina baldintza izango litzateke zenbat jende bilduko litzatekeen bolondres modura. Ni aurretik hemen nago lanean, baina datorren urtean ez dakit, eta ni bezala asko.

## **10. Zer proposatuko zenuke Goxali hobetzeko?**

Irakurketa bultzatzeko zerbait.

Adibidez, astero panel batean jarri zein liburu irakurri den, gustukoa izan dudana edo ez, norik egin den, zer aldatuko niokeen...



## **1. Noiztik ezagutzen duzu Goxali? Nola izan zenuen Goxaliren berri?**

Duela bi urtetik ezagutzen dut. Nire anaia txikia joaten zen noiz behinka, orduan izan nuen Goxaliren berri.

## **2. Zergatik zaude Goxalin begirale? Zer ematen dizu zuri pertsonalki?**

Proposatu zigutenean ideia ona iruditu zitzaidan, eta laguntzeagatik. Umeekin oso ondo pasatzen dut. Ja, ja, ja...

## **3. Zertaz arduratzen zara zu Goxalin?**

Batzuetan liburutegian ixilik egoteko esan... eta beste batzuetan jokoetaz. Denetatik piska bat.

## **4. Gustura ibiltzen al dira umeak? Zein da gehien gustatzen zaien ekintza?**

Umeak oso gustura ibiltzen dira. Badiara joko batzuk lehenagotik erabiltzen dituztenak. Beste berri batzuk erakutsi dizkiegu eta oso gustura ibiltzen dira.

## **5. Zein da gutxien gustatzen zaiena?**

Etxeko lanak egitea, nahiago izaten dute marrazten eta margotzen aritzea. Irakurri ere oso gutxi egiten dute.

## **6. Umeek berek beren jokoak antolatzeko zer egiten duzue, eta zer proposatu duzue?**



**Izen-abizenak:** Ibai Zubiri  
**Gaztelumendi**  
**Adina:** 21 urte  
**Ikasketak:** Arkitektura teknikoa.  
**3. maila**

## **satuko zenuke haien parte-hartzea hobetzeko?**

Haiek esaten digute guk proposatutakoa gustatzen zaien ala ez. Ez bazaie gustatzen guk galdetzen diegu eta denon artean erabakitzen dugu zer egin.

Nik uste kanpoan joko egiten hastean, etortzen ez diren umeek ikusiko gaituztela eta animatuko direla. Haiek anima daitezela elkarren artean, ahalik eta gehien etortzeko.

## **7. Gurasoekin harremanik baduzue? Zertarako da beharrezkoa?**

Bai, badugu harremana, lokala haientara da eta material batzuk ere haie eskatu beharra daukagu. Eta haien haurrak gustura etortzen diren ala ez galdetzen zaie. Guraso bat ere bada begirale.

## **8. Eskolarekin harremanik baduzue? Zertarako da beharrezkoa?**

Bai, eskolarekin ere harremanetan gaude, proposamenak ematen dizkigute eta materiala ere uzten digute.

## **9. Nondik nora ikusten duzu Goxaliren etorkizuna?**

Nire ustez, etorkizuna badu, umeek elkarrekin etxeko lanak egiten ikasteko aukera ona da eta ondo pasatzen dute gainera. Hala ere eguraldi ona egitean agian ez da hainbeste haur etorriko.

## **10. Zer proposatuko zenuke Goxali hobetzeko?**

Haurren elkarlana eta parte-hartzea hobetuko lukeen zerbait, nahiz eta nahiko ondo egiten duten. Baita gustuko atalak errepikatzea ere, gustura etor daitezten.

## • ERABILTZAILEAK



**Izen-abizenak:** Ana Huizi,  
Ane Taberna, Nerea  
Zabaleta  
**Adina:** 13 urte  
**Ikasketak-maila:** DBH 2.  
maila

## **1. Noiztik ezagutzen duzu Goxali. Nola izan zenuen Goxaliren berri?**

Orain dela 2 urte hasi zenetik. Eskolan esan zigutelako.

## **2. Goxalin zer egiten duzue? Eta zer da Goxali zuzendatzaile?**

Irakurri, etxeko lanak egin eta jokuak. Liburutegia, gauza askotarako baliogarria.

## **3. Zuri gustatzen zaizkizun joko edo ta jolas batzuen izena eman:**

Super-poli, alargunaren jokoak...

#### **4. Asteburuetan zer egiten duzu normalean?**

Lagunekin egon.

#### **5. Non gustatzen zaizu gehiago jostatzea: kalean edo Goxalin? Zergatik?**

Eguraldiaren arabera, baina Goxalin gusturago.

#### **6. Non egiten dituzu hobeki etxeko lanak: etxean edo Goxalin? Zergatik?**

Goxalin, lagunekin errazago egiten dudetaz hitz egin.

#### **7. Non irakurtzen duzu hobeki: etxean edo Goxalin? Zergatik?**

Etxean, askotan isiltasuna falta delako.

#### **8. Goxalin egindako gauzarik erakargarriena edo politena zein izan da zuretzat?**

Denetarik.

#### **9. Goxalin egindako gauzarik aspergarriena edo itsusiena zein izan da zuretzat?**

Oraingoz ez naiz aspertu.

#### **10. Goxaliren arduraduna bazina zer proposatuko zenuke?**

Goizuetako eskolatik kanpora dagoen jendea ere sartzea etxeko lanak egitera.

#### **11. Goxalik ekintzak erabakitze eta antolatze aukerak ematen dizkizu, zuri gustatuko litzazukeen bezala. Gutxi bada zer proposatuko zenuke?**

Dagoen bezala gustura gaude.



**Izen-abizenak:** Oihane Zugarramurdi, Ainhoa Zabaleta  
**Adina:** 9 urte  
**Ikasketak:** LH 3. maila

#### **1. Noiztik ezagutzen duzu Goxali. Nola izan zenuen Goxaliren berri?**

Txikitatik izan dut Goxaliren berri.

#### **2. Goxalin zer egiten duzue? Eta zer da Goxali zuretzat?**

Denetatik egiten dugu. Haurrek disfrutatzeko leku egokia da guretzat Goxali.

#### **3. Zuri gustatzen zaizkizun joko edo eta jolas batzuen izena eman:**

Alargunaren jokoa, Amona Mantangorria...

#### **4. Asteburuetan zer egiten duzu normalean?**

Kanpora joaten naiz normalean.

#### **5. Non gustatzen zaizu gehiago jostatzea: kalean edo Goxalin? Zergatik?**

Goxalin joku politak daude. Diberitzen garelako.

#### **6. Non egiten dituzu hobeki etxeko lanak: etxean edo Goxalin? Zergatik?**

Goxalin. Gehienetan etxean egite.

rakoan berandu izaten da eta presaka bezala egiten ditut.

#### **7. Non irakurtzen duzu hobeki: etxean edo Goxalin? Zergatik?**

Goxalin, etxean ez naiz kontzentratzen.

#### **8. Goxalin egindako gauzarik erakargarriena edo politena zein izan da zuretzat?**

Trena izan da, nahiz eta oraindik paretean jarri ez.

#### **9. Goxalin egindako gauzarik aspergarriena edo itsusiena zein izan da zuretzat?**

Ezer ez, dena polita.

#### **10. Goxaliren arduraduna bazina zer proposatuko zenuke?**

Denak pozik egotea, guk prestatutako gauzekin, eta ondo konpontzea elkarrekin.

#### **11. Goxalik ekintzak erabakitze eta antolatze aukerak ematen dizkizu, zuri gustatuko litzazukeen bezala. Gutxi bada zer proposatuko zenuke?**

Ezer ez, denetik badago eta.

# Aimar Olaizola 14 urte atzera eginda


**A**rtikulu honek ez du aurkezpen luzerik behar. Duela 14 urte argitaratutako lana ekarri nahi izan dugu hona, besterik ez bada, Aimar aspaldi hasi zela bere dohaiak erakusten gogoratzeko. Hainbeste urteren bueltan, interesgarria iriditu zaigu orduan Tipi-Ttapan argitara eman zuten erreportajetxo — eta argazkiak! — hona ekartzea. Hemen duzue, beraz, orduan argitaratu zen bezalaxe, Esteban Arotzenak egindako elkarrizketa eta artikulua.

## Aimar Olaizola: «*Neretzat entrenamendurik hoberena torneoak jokatzera da*»

*Hamabi urte bete berriak eta jada 25 txapela irabazi ditu pilotari Goizuetarrak*



Ez dugu esango munduko rekorra denik edo orain arte holakorik inork lortu ez duenik, baina ukaezina da Aimar Olaizolarena ez dela txantxetako, oso gutxi bait dira pilota munduan behintzat 12 urte bete baino lehen 25 txapela eskuratzeko ahalmena izan dutenak.



Aimar Olaizolak 8 urte zituenek gerotzik txapelketaz txapelketa dabil

Aimar Olaizolak bete berriak ditu 12 urte, hain zuzen, azaroaren 13an, eta berak esan zigunez, 8 urte zituenek gerotzik, txapelketaz txapelketa eta torneoaz torneo dabil. Zutik ikasi orduko hasi omen zen pilotan "gehien bat Goizuetan beste aukerarik ez da-

## ELKARRIZKETA



Beloki eta Eugi pilotan, eta Osasuna, Urban eta Joxe Mari Bakero herritarra futboleko dira bere idolorik nagusienak

—“  
*Esan daiteke nere familian pilotaz besterik ez dela hitzegiten eta nere anai zaharrenak ere hontan aritzen dira*”.



12 urtetako bi garaipen lortu du Nafarroako Herriarteko edo Interpueblos txapelketan

*goelako, baina etxeko giroak ere eragina handia izan zuen. Esan daiteke nere familian pilotaz besterik ez dela hitzegiten eta nere anai zaharrenak ere hontan aritzen direnez ez dut zalantzarik izan zein kirol praktikatu nahi nuen erabakitzerakoan*”.

Aimarren palmaresari gainbegirada bat emanaz, aipatu behar da bi garaipen lortu dituela Herriarteko edo Interpueblos txapelketan, Nafarroako Neguko Txapelketan 3, Tafallan beste bizpahiru, Euskadiko Txapelketa, Burlatako Torneoa, Goizuetakoa, Irungoa, Errenderi, Irurtzun... etabar. Sona gehiena “Interpueblos”eko txapelek izan badute ere, Aimarrek inoiz ahaztuko ez

duen garaipena Ortue-llakoa omen da, 18 eta 15 irabazi bait zieten Euskal-lerriko txapelketaren finala Aldaia eta biek Bizkaiko ordezkari, ordu batetik gora iraun zuen partidoan.

La egunero aritzen da Aimar pilotan. “Edozein momentu aprobetxatzen dut hortarako, errekreoak, ilunabarrak, oporrak, edo beste asteburuak. Hortaz gain azken aldi honetan gehiegitan ez bada gertatzen ere, entrenamentu ofizialak izaten ditugu, baina neretzat entrenamendurik hobena torneoak jokatzeko da”. Beste adineko gazte gehienek bezala Aimarrek baditu bere idoloak batez ere pilota munduan. “Beloki ikaragarri gustatzen zait eta Eugi ere bai. Fut-

*bolzalea eta Osasunaren aldekoa naizenez Urban ere nere idoloetako bat da, eta nola ez, nere herriko Joxe Mari Bakero ez dut aipatu gabe utzi nahi*”. Oraindik oso serio bere burari holakorik planteatu ez badio ere, gure galderari erantzunez argi utzi zigun pilotari on bat izatea dela haunditzen denerako bere helburuetako bat.

Aimar Olaizolaren mundua ez da pilotari bakarrik mugatzen. “OHoko zazpigarren mailan ikastendut, eta egia esateko gehiegi estudiatzen

*ez badut ere, orain arte bahintzat beti aprobatu izan dut*”.

Orain artekoak baino garrantzia gehiagoko txapelaren bat lortzen duenean beste elkarrizketa bat egingo geniola ziurtatuta agurtu genuen Aimar. Larunbata arratsaldea zen eta patrikan jasoa zuen pilota eskuan hartu eta frontoi aldera bideratu zen zuzen zuzenean.

Testua: Esteban AROZENA  
 Argazkiak: Anton ERKIZIA

# HIZKUNTZA MINORIZATUEN INGURUKO IRITZIAK

**E**uskara hizkuntza minorizatu edo gutxitua da. Horrek, zalan-tzarik gabe, hizkuntza “txikien” inguruko kezka eta elkartasun sentimendua piztu du gurean. Euskaldunok badakigu zer den hizkuntza nagusien mendean bizitzea, eta mendetako eskarmentua daukagu. Hizkuntza minorizatuaren aldeko ahotsak, beraz, poz handiz entzuten ditugu, eta gaur egun, zorionez, asko dira

hizkuntza guztiei eustearen alde aritzen direnak.

Ez denak, ordea. Gezurra badirudi ere, badira oraindik ere hizkuntza “txiki” horiei eustea alferrikako lantzat hartzen dutenak, eta nahiago luketenak horiek denak bazter uztea. Hizkuntza minorizatuak — euskara, adibidez — badituzte, beraz, aldeko argudioak, baina baita aurkakoak

ere. Artikulu honetan, labur antzean, horien berri eman nahi dugu, Nick Gardner Bridger izeneko teknikari batek argitaratutako txostena abiapuntu gisa hartuta (artikulu osoa [www.erabili.com](http://www.erabili.com). helbidean).

Jakina, gure ikuspuntua hizkuntza gutxituen aldekoa da — ez dago ezkutatu beharrik —, eta aurkako argudio horiei aurre egiten saiatuko gara.

## “Hizkuntza gutxituak, minorizatuak: horiek gabe hobe?”

Badago pentsamolde jakin bat, galdera hori egiten duena, eta, are gehiago, baiezkoarekin erantzuten duena. Baiezkoa esateko erabiltzen dituen argudioetako batzuk dira honako hauek:



### Hizkuntza bakarria izatea askoz merkeago da

Honen atzean dagoena, normalean, honakoa da: “egin dezagun denok nire hizkuntzan”. Hizkuntza bakarria merkeago dela esaten duenari, galdetu beharko zaio berea uzteko prest ote dagoen. Normalean, hizkuntza nagusien (gaztelania, frantsesa...) hitzun batzuek esaten dituzte horrelakoak. Haien hizkuntza ingelesaren

mesedetan utziko luketen galdetuz gero, ikusi beharko litzateke zein den erantzuna.

Eta, bestalde, Gardnerrek dioen bezala, “mundu osoan zehar omen dauden sei mila inguru hizkuntzak bakar batera murriztea berez prozesu ezin garestiagoa izan liteke eta ez askoz merkeagoa”.

Argudio horren alderik okerrera, hala ere, hau da: hizkuntzen inguruko balorazioa diruaren arabera egitea. Kultura eta hizkuntza aniztasunak dakarren aberastasunari begiratu beharrean, hizkuntzen beharra ekonomikoki neurtzen du.

### Hizkuntza gutxituak berreskuratzea ezinezkoa da, eta denbora, dirua eta energia alferrik galtzea da

Argudio honen arabera hizkuntza txikiak “berez” desagertzen dira, modu naturalean. Gauza jakina da, ordea, hizkuntzen galera-prozesuan beti arrazoi politikoak, ekonomiko-

ak, kulturalak, militarrik... daudela. Alegia, ez dela inolaz ere fenomeno naturala.

Bestalde, badaude hizkuntza berreskuratzeko ahalegin arrakastatsua egin dutenak (Belgika, Quebec, Suomi...). Ez da alferrikako ahalegina — bai ahalegin handia —, eta are gutxiago dirua eta denbora galtzea. Irabazia, kulturaren eta aniztasunaren ikuspegitik behintzat, ikaragarri handia da.

### Hizkuntza asko berez dira desagokiak bizitza modernorako, barruan dute gaitza, eta horrexegatik desagertzen ari dira

Argudio hori hizkuntzalaritzak aspaldi deuseztatu zuen. Hizkuntza guztiak gauza dira beren hiztunen beharrik asetzeko, horretarako aukera emanez gero. Hizkuntza guztiak sistema konplexuak eta eraginkorrik dira, bizitzako behar guztietarako molda daitezkeenak.



## Hizkuntza gutxituen kasuan, beren hiztunek ere ez dituzte hizkuntza horiek balioesten

Hori horrela gertatu denik ezin da ukatu, baina argi utzi behar da hizkuntza-zanpaketaren ondorio bat dela. Hizkuntza nagusiaren presioak eta eraginak sortzen duen jarrera da, baina, aurreko argudioari buruz esan dugun bezala, ez da berezko fenomeno, ez da gertaera naturala. Kanpo-presiorik edo errepresiorik gabe, normalena da nork bere hizkuntza baloratu eta estimatzea.

Bestalde, Gardnerrek dioen bezala, *“bereziki bidegabekoa dirudi mintzaldaketaren biktimei egozteak halako indarrei amore ematearen errua. Izan ere, mintzaldaketa-indar horiei aurre egiteak batzuetan amore berezia eskatzen du. Halako jarrera negatiboa presio sozial eta ekonomiko izugarrien emaitza dira normalean”*. Alegia, presio horren biktimak ezingo dira errudun bihurtu.

Horiek, beraz, hizkuntza gutxituen aurkako argudio batzuk. Azalean, argudio praktikoen itxura dute. Baina sakonean, dibertsitatearen aurkakak dira, eta atzean dagoena “indartsuenaren legea” izaten da; eta beti indartsuenari egiten diote mesede, ahulenaren aurka.

## Hizkuntza gutxiak zergatik babestu?


Ikus dezagun orain txanponaren beste alde. Hizkuntza gutxituek babesa behar dutela uste dugu guk. Eman ditzagun horren aldeko zenbait argudio, labor-labor, aurreko atalean esandakoei eransteko:

## Hizkuntza-eskubideen argudioa

Hizkuntza eskubideak giza eskubideak dira. Ondorioz, gainerako giza eskubideak bezalaxe, errespetatu eta bete egin behar dira. Nazioartean gero eta gehiago dira hizkuntza eskubi-

deak aitortzen dituzten akordioak, itunak eta erabakiak.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar hizkuntza gutxituetako hiztunok ere zergak ordaintzen ditugula, eta hizkuntza nagusiak bezala, gureak ere sostengu ekonomikoa izan behar duela.



**Baso tropikaletako zuhaitzak moztean edota oraindik ikertu gabeko landareak desagertzen direnean zer galtzen ari garen ondo ez dakigun bezala, sarritan ez dakigu justu-justu zer galtzen ari garen hizkuntza bat suntsitzen denean.**

## Argudio ekologikoa

Hitzez hitz, honela dio Gardnerrek: *“argudio ekologikoak konparazio bat egiten du: alde batetik, landare eta animalietan ikus daitekeen biodibertsitatea eta, bestetik, hizkuntzetan dagoen aniztasuna. Eta azpimarratzen du justu hizkuntzak ugariagoak diren lekuetan, landare eta animalia-espezieak ere ugariagoak direla, batez ere eskualde tropikal edo subtropikaletan. Leku horietatik iparraldera edo hegoaldera urruntzen garen neurrian, aniztasuna ere murrizten doa.*

*Baso tropikaletako zuhaitzak moztean edota oraindik ikertu gabeko landareak desagertzen direnean zer galtzen ari garen ondo ez dakigun bezala,*



**hizkuntza guztiak izan daitezke bizimodu modernorako egokiak**

*sarritan ez dakigu justu-justu zer galtzen ari garen hizkuntza bat suntsitzen denean. Eremu urriko hizkuntzen erabiltzaileen zoritxarrerako, halako ondasun ederra salbatzeko premia ez da hain erraz saltzen entzuleen artean, nahiz eta entzule horiek berak panda handiak, Bengalako tigreak, baleak, edelweiss-ak eta ohiz kanpoko orkideak salbatzearen alde egon.”*

## Globalizazioaren aurkako argudioa

Globalizazioak gauza onak ekar ditzake, baina baita txarrak ere: aniztasuna suntsitzea, uniformizazioa... Batzuen ustez, hizkuntza-erresistentziak globalizazioaren eragin txarrari aurre egiten laguntzen du.

## Ondasun-suntsipenaren argudioa

Berriz ere, Gardnerren hitzak ekarriko ditugu: *“Hizkuntza bat galtzea kultura horren zati bat galtzea da. Kultura tradizional batzuek, adibide bat ematearren, bertako fenomeno naturalen, landareen edota animalien oso analisi sofistikuak ematen dituzte, batzuetan zientzia modernorak eskaintzen dituenak baino aberatsagoak. Jakituria-aitxor horiek galtzeko arriskuan gaude, baldin eta jakituria hori jaso baino lehen hizkuntza bera desagertzen bada”*.

## Argudio linguistikoa

Giza hizkuntzak nola funtzionatzen duen jakin nahi badugu, zenbat eta iturri gehiago jorrazeko modua izan, hainbat eta hobeto.

Ez ditugu argudio guztiak agortu, jakina. Hizkuntza gutxiak babesteko hamaika arrazoi daude, eta zuk ere, irakurle, izanen dituzu zure arrazoi propioak. Hemendik, besterik gabe, arrazoi horiei sendo eusteko gonbitea egiten dizugu; eta, zehazkiago, gurea den euskara erabiltzeko gonbitea.



*euskarari*



**BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA GOIZUETAN ETA ARANON**

**Bidean (11)**

Ansa janari-denda  
 Apezetxea Egurrak  
 Benta berri jatebxea  
 Botika  
 Goizuetako estankoa  
 Gure Ametsa taberna  
 Kinttalko eraikuntzak  
 Konzejju ostatua  
 San Roke elkartea  
 Zeferino Apezetxea eta semeak  
 Zumarra burdindegia

**Zerbitzua euskaraz (9)**

Amaita okindegia  
 Antton Huizi Egurrak  
 Elordi jatebxea  
 Gure txoko  
 Iskibi Kanpina  
 Mike ileapaindegia  
 Umore Ona elkartea  
 Untxalo liburu-denda  
 Urrutinea ostatua

**Zerbitzua eta lana euskaraz (2)**

Goizuetako gazte asanblada  
 "Gurasoak" guraso elkartea



Lehenagoan bi lagun elkartu omen ziren kalean eta:

- "Hara, Joxe Agustin, zer moduz bizi haiz?"
- "Tira, ongi, ongi! Lehenagoan ospitalean egon ninduan. Bai. Operazioa eduki nian eta"
- "A Bai? Zer gaixotasun eduki duk ba?"
- "Zera, nola da hori? Izena ahaztu egin zaidak, gauzak ahaztu eta ezin bere izenarekin deitu. Nola da hori?"
- "Ez zekiat motel, zer gaixotasun den hori".
- "Itxoin ezak, hi, nola da, galleta horiek nola dira, galleta normalak, betikoak? Maria? Maria: ze gaixotasun eduki nuen lehengo astean?"

- Etxera ailegatu nauk, eta andrea larrua jotzen beste batekin. Bi metroko tipo, baina ikaragarri batekin!

- Jo, ez esan.
- Bai. Bai.
- Eta zer egin huen?
- Halako batean altxatu duk tipoa eta "hi, ez hadila hemendik pasa", marra bat marraztu dik lurrean, eta "hemendik pasatzea ezta okurritu ere!"
- Jo, eta zer!
- Berriz ere sartu duk ohera, eta larrua jo eta jo eta jo, eta jo, eta ni begira.
- Eta zer egin huen?
- Begiratzen ez zuenean, zapaldu egiten nian marra, ja, izarra hadi!

- Triste? Ez ezazu horrelakorik esan. Medikutatik nator orain eta.
- Bai? Eta zer esan dizu?
- Aiiiiii! Astelehenean hilko naitzela.
- Joñoóóó! Ez duzu ederki hasi behar astea.

- A izu, Mari Karmen, senarra zer dabil?
- Zer ba?
  - Denekin larrua jotzen ari da. Eta besteak:
  - Ez esan; ai ama, hori lotsa, ikaragarri gaizki jotzen du eta!

Lagun batek besteari:

- Lehengoan ederra pasatu zitzaidanean.
- Zer?

Gizon bat medikuarengana joan omen da. Atera da kontsultatik, eta, kalean dagoela, lagun batekin elkartu da:

- Joño, Jose, triste ikusten zaitut.

A itatxo, nolakoak dira mozkorrak?" "Begira, alabatxo, ikusten dituzu hango bi zuhaitz haiek? Ba mozkorrek lau ikusten dituzte bi dauden tokian". "Baina, aitatxo, han zuhaitz bakararra dago eta".





# ZURE TXANDA



**Ibai Zubiri**

**21 urte**

**ikaslea**

**Goizeko 6,30etan jaiki eta...**

Gosaldu eta unibertsitatera uff!!!!!!

**Irakasle amargatu haiei agoantatu beharra ere!!!**

Orduk lehenbailehen pasatzeko esperantzan.

**Bidean, unibertsitatean, 12 ordu etxetik kanpo eginda...**

Askotan etxean gehiago ikasi beharra. Ahal badut gaztetxean lagunekin egotera

**Otsaila. Inñoteak. Azterketak bete-betean**  
Aurten horixe pasatu zait. Lagunak mozo-  
rotan eta ni etxean ikasten.

**Uztailak 30. Etxean ikasten**

Ekaina bitarte saiatu behar uda lasai pasatzeko.

**Aste bukaera. Poltsikoak hutsak**

Gurasoen kontura bizi behar garai hobeen zain.

**Asteburua deskantsatzeko?**

Normalean bai. Batez ere burua deskantsatzeko.

**Neskatarako laguntzen du unibertsitarioren irudiak.**

Ez dakit baina nire neska ere unibertsitaria da.

**Berriz jaio ezker?**

Berriz ere ikasten saiatuko nintzateke. Lanerako denbora izanen da aurrerago ere.



**Jexux Mari Mitxelena**

**22 urte**

**obratak langilea**

**Goizeko 6,30etan jaiki eta...**

Ez gaudek berriz etxera ailegatuik!!!

**Nagusari agoantatu beharra. Gogorra ez?**

Horretan suertea dit nik. Nagusiekin bas-tante ongi moldatzen nuk

**Hamar ordu lan egin eta etxera ailegatzeko?**

Egun guziko momenturik onena. Dutzatu, afaldu eta lagunekin egotera.

**Otsailak 2. Egun osoa euripean lanean.**

Ikaragarri egun luzea. Beti relojuari begira eta 6,30k ailegatzeko ez.

**Uztailak 30. Egun guztia eguzkitan lanean.**

Eta lagunak Iberon.

**Hilabete bukaera bai ona!!!**

Igarotako sufrimenduaren fruitua. Horrekin pozten gittuk pixkot.

**Asteburua deskantsatzeko?**

Andregai egin dudantetik bai. Lehen parranda gehiago egiten nien.

**Esquak lakatzak. Neskatarako?**

Tarteka pixkot kejatzen duk biño ongi moldatzen gittuk hala ere.

**Berriz jaio ezker?**

Nere buruari gogor egin eta gehixeago estudiantuko nikek.